

## **Arrantzaleen ezagutza, kudeaketa eta arrantza politikan parte hartzea**

(Knowledge, management and participation of the fishermen in fishing policies)

PEREZ ALDASORO, Pío<sup>1</sup>; HERMOSILLA PEREZ, Daniel<sup>2</sup>  
Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia saila. Tolosa Hiribidea 70. 20018 Donostia  
1 pio.perez@ehu.es; 2 daniel.hermosilla@ehu.es

---

Arrantzaleek, bere lanbidea eraginkortasunez burutzeko ekoizpen bitarteko intelektualak behar dituzte. Ezagutza hauek ahalbide dezakete itsaso-baliabideen ustiaketa arrazionalagoa, ezen arrantza komunitatearen erreprodukzio soziala baimentzen duten. Gaur egun baliabi-deak ustiatzeko kudeaketaren politikaren porrota nabaria da: zientifikoek proposatzen dute eta politikariek erabakiak hartzen dituzte, arrantzaleen ezagutzak kontutan hartu gabe. Erabaki gunetan ezagutza horren erabilerak zenbait onura ekarriko lituzke: baliabideen gaineko datuak eskaintzea, baliabideen egoera eta etorkizuneko egitasmoak planifikatzeko aukera.

Giltza-Hitzak: Arrantzaleen ezagutza. Kudeaketa eta parte hartzea.

Los pescadores requieren medios de producción intelectuales para desarrollar su oficio con eficacia. Tales conocimientos permitirán explotar los recursos marítimos de una forma más racional y favorecerá la reproducción social de la comunidad pesquera. El fracaso de la actual política de explotación de recursos es más que evidente: los científicos lanzan sus propuestas y los políticos las aceptan, haciendo caso omiso de los conocimientos de los pescadores. La atención por parte de los centros de decisión hacia el saber de los hombres del mar, sin embargo, reportaría varios beneficios, tales como disponer de más datos sobre los recursos y tener la posibilidad de planificar los proyectos.

Palabras Clave: Conocimiento de los pescadores. Gestión y participación.

Les pêcheurs ont besoin de moyens de production intellectuels pour développer efficacement leur métier. De telles connaissances permettront d'exploiter les ressources maritimes d'une façon plus rationnelle et favoriseront la reproduction sociale de la collectivité de la pêche. L'échec de la politique actuelle d'exploitation des ressources est plus qu'évident : les scientifiques lancent leurs propositions et les politiques les acceptent, ne faisant aucun cas des connaissances des pêcheurs. Cependant, l'attention des centres de décision se rapportant au savoir des hommes de la mer pourrait rapporter de nombreux avantages comme, par exemple, celui de disposer d'informations supplémentaires sur les ressources et avoir la possibilité de planifier les projets.

Mots Clés: Connaissance des pêcheurs. Gestion et participation.

## 1. SARRERA

Itsas arrantza ingurune itsastarrean garatzen da, jakina denez, eremu ez bezatuan eta ez seguruan, gizakiarena ez den ingurune natural batean, alegia. (SANCHEZ FERNANDEZ 1993: 498). Izan ere, arrantza jardueran itsasoan arrain sardak leku-tzea arazo iraunkor bihurtzen da (ANDERSEN & WADEL 1972: 153). Itsas baliabideen behaketaren arazoa zailtzen da arrain sardak demersalak direnean, hauek itsason-dorretan bizi baitira.

Denborarekin eta urteetako praktikaren ondoren arrantzaleek lortuko dituzte bitarteko kognozitibo batzuk, zeinek baimenduko baitute arrantzalea itsasoan bere burua lekutzea eta, bidenabar, itsas harrapakin eta ingurunearen portaera aurre ikustea. Modu berean, azpimarratzekoa da hautemate ahalmen garrantzitsuak ere garatuko dituztela eta baita itsasoan egunero erabiltzen dituen lanabesekin aritzeko trebetasun aparta ere. Trebetasun hauek garatzeak ez du esan nahi azaleko ezagupen multzo bat edukitzea bakarrik, baizik eta teknologia kulturean deitutako “savoir faire” bereganatzea. (GALVAN 1988: 13).

Orduan, arrantzaleek, bere lanbidea eraginkortasunez burutzeko, baliabide tekniko berezietz gain (arrantzuntzi, sare edo bestelakoak), adimenezko beste baliabide batzuk behar dituzte, Godelier jarraituta ekoizpen bitarteko intelektualak dei ditzakegunak (GODELIER 1979, 4: 5). Frantziar antropologo honen aburuz, ekoizpen indarren artean bereizi behar dira bitarteko materialak eta bitarteko intelektualak. Azken hauek dira bitarteko materialak ez direnak, baina ekoizleak bere lan prozesuetan erabiliko dituenak: arrantzaleak menderatuko duen ezagupenen, trebetasunen, tekniken eta baloreen multzoa, hauei gehitu behar zaie arrantzalearen intuizioa edo seigarren zentzumena.

Hala eta guzti zere, bitarteko hauek, ekoizpenean izan dezaketeen garrantziaz gain, arrantzaleen ezagutza hauek ahalbide dezakete itsaso-baliabideen ustiaketa arrazionalagoa, ezen inguruneko biodibertsitatea mantentzen den bitartean arrantza-le komunitatearen erreprodukzio soziala baimentzen duten. Ezagutza hori ez da bakarrik lanabes teknikoa, gizakia eta arrantzaleen komunitatearen ongizatea bultzatzeko potentziala da eta era berean aniztasun kulturala eta identitate kulturala bultzatzen ditu. Horregatik, gure ustez, ezagutza mota hau baloratu eta duindu behar da, horregatik beste ezagutza, eta zehazki ezagutza zientifikoarekin harremanetan jarri behar da, zeren itsaso-baliabideen kudeaketa, edo kudeaketa politikak hautatzean, arrantzaleen ezagutzak badauka zer esana (ARANDA ET ALL 2006).

## 2. EZAGUTZA ETA TRADIZIOZKO EZAGUTZA EKOLOGIKOA

Jakintza edo ezagutza zientifikoa ingurune naturalaren ikerketaz eta ezagutzaz arduratzen den sistema da. Zentzu zabalean hartuta, ezagutza hau praktika sistematikori eta metodoari lotzen zaio. Ezagutza zientifikoa empiriatik haratago doa, legeak aurkitu nahi ditu, eta jarduera intelektual metodiko eta sistematikoa da, hots, gertakizunen zergatia aurkitzen saiatzen da urrats edo bide jakin batetik abiatuta.

Aipatu dugu nezagutza zientifikoaz gain badaude beste ezagutza mota batzuk, beste egitura kognitiboetan oinarritzen direnak, zeinak bere eraginkortasuna edo zenbait gertakizunena urrean aurreikuspena egin ditzaketanak, edo zenbait gertakizun gauzatu

edo gauzatu ez dadin demostratu baitituzte. Arrantzaleen kasuan, denboran zehar ingurune zaila eta aldakorretan mugí ahal izateko eraginkortasuna demostratua dago.

Ez diogu garrantzirik emango gnoseologiaren arazo nagusienetarikoiari, ea noiz eta zein baldintzetan sinesmen, judizio edo proposizio bati ezagutza deitu diezaioketun. Gure ustez, bere lanean arrantzaleek erabiltzen duten jakintza multzoa ezagutza da. Arrantzaleen ezagutza holistikoa da eta alderdi ezberdinak hartzen ditu, hala nola ustiatzaileen komunitateak ingurunea erabiltzen duten eta erreproduzitzen laguntzen duten, edota bere baliabideak kudeatzeko estrategiak edo ezagutza ekologiko berezitua. Ezagutza honi izendapen ezberdinak ezarri izan zaizkio, honela deitu izan zaio tradiziozko ezagutza ekologikoa (Traditional Ecology Knowledge), ezagutza lokala, herri ezagutza edo ezagutza indigena, izendapen hauek guztiak etnozientziaren inguruan aurreko mendeko 80.hamarkadan sortu ziren kontzeptuak dira (REYES-GARCIA, MARTÍ 2007).

MAILHOT-ek (1993) tradiziozko ezagutza ekologikoa kontzeptua erabiltzen duenean adierazi nahi du gizaki talde batek bere inguruneari buruz eskuratu dituen datu eta informazio batura, belaunaldi ezberdinen bitartez lurralde baten erabilera eta okupazioa. BERKES-ek (1997), berriz, honela definitzen du honelako ezagutza: ezagutza, jarduera eta sinesmen multzo akumulatiboa, zeina egokitzapen prozesuen ondorioz bilakatzen baita eta belaunaldi desberdinetan zehar transmisio kulturalaren bidez komunikatzen da, eta guztiak izaki bizidunek, gizakiak barne, ingurumenarekin duten harremanari buruz dihardu.

Ezagutza hau belaunaldiz belaunaldi transmititzen da, akumulatiboa da, dinamikoa eta enpirikoa. Arrantzaleen ezagutza hau ezagutza ekologikoaren espezializazioa da. Alde batetik, inguruneako osagaiak (banaketa espazialak, espezien arteko harremanak eta natur fenomenoak) sailkatu, antolatu eta interpretatu egiten ditu. Bestetik, garatzen ditu itsaso-baliabideen harrapaketa erregulatzeko, bere iraupena ziurtatzeko eta ebaluaketa egiteko kudeaketa sistemak. Eta azkenik, gizaki taldearen ikuspegi identitarioa.

Ezagutza hau eskuratzeko arrantzale bakoitzak bere trebetasun intelektualak eta sentikorrak erabiltzen ditu, ez dago metodologia hitzartua, ez eta ezagutza hori adierazteko eta transmititzeko terminologia bateratua. Neurri berean denboran zehar sortu den ezagutza aztertzeke historiografiarik.

Ezagutza ekologiko eta tradizionala honen beste ezaugarria da bere onespren sozial zein instituzionalaren gabezia, beraz, ez du beharrezkoa duen laguntza politiko eta soziala ezagutza gehiago eta hobea sortzeko. Natur baliabideen inguruan aurkitzen ditugun arazoei aurre egiteak eskatzen du ikuspegi interdiziplinarra, honela uztartuko dira arrantzaleen komunitateen interes eta ezagutza keta zientifikoak, sozial zein naturalak.

Naturaren baliabideak maneiatzeko garrantzitsua agertzen den bezala, tradiziozko ezagutza ekologikoak lagun dezake arrantzale komunitatearen ongizatean eta gizaki talde horien garapen ekonomikoan, gainera aniztasun kulturala aberasten du eta gizaki talde horiei partaide izatearen zentzua edo identitate kulturala eskaintzen die.

### 3. ARRANTZAREN BALIABIDE TEKNIKO ETA KOGNOSZITIBOAK

Bitarteko intelektualak ikasketa prozesu luzearen ondorioak dira, sarritan era informalean jasotako apendizaiak, zeina ofizioa eskuratzearekin batera ez baita amaitzen. Langintza horrela definitua praktikaren teoria baino ez da (JORION 1983: 120), zeren ofizioa dinamikoa da, egunero hobe daitekeena eta denborarekin indartzen dena. Arrantzalearen esperientzien multzo hau talde baten parte hartzeak arautzen du; izan ere, arrantza talde bateko partaide izateak berekin darama gertaera batzuekin harremanetan sartzea eta zenbait praktika kulturalak burutzea.

Ezagupen praktikoa hauek produkzio bideen barne sartu behar dira, hauen alderdi bat baita, zeren ekoizpenen jarduera eraginkortasunez garatzea ahalbidetzen dute, azken finean, baliabideak harrapatzeko sarbidea besterik ez dira (BRETON 1990).

Mekanizazio eta lan teknifikazioaren etengabeko aurrerakuntzaren eta egokitza-penaren eraginez arrantzaleen langintzan aldaketa batzuk sortu dira. Baliabide teknikoak urriak direnean, beharrak osatzen dira inguruko edo lanbideko ezagutza kognosizitibo zorrotzekin, baina, aitzitik, teknifikazioa eta lan mekanizazio maila igotzen direnean langintza bera eta ezagutza profesionalaren garrantzia, neurri berean, gutxitzen doa. Teknika berriak ezartzeak laguntzen du, adibidez segurtasuna handiagoz ibil daitezke itsasoan. Denek onartzen dute teknologiak duen garrantzia arrain gehiago harrapatzeko, baina eskaini dezakeen laguntza ez da nahikoa. Teknikak eskaintzen dituen datuak interpretatu behar dira. Eta hor dago arrantza patroien garrantzia; ingurune itsastarraren aldaerak eta aleatorietateak interpretatzeko ahalmenak, bederen, intuitiboki.

F.P.: “Gaur egun dauden inbentoekin errazago duk arrantza izatea, ikusi beharko huke gure garaian, zaila ziken jakitea non gintuken eta, pentsa ezak, non hago jakin ez eta arrantza? zaila, ziken, oso...”

Era berean, esan daiteke baliabide teknikoak eta mekanizazioa areagotzen direnean arrantzuntzi barneko funtzioei dagokien espezializazioa handitzen doala. Hala-ber, langintzari buruzko apendizaiak errazten da, eta arrantza munduarekiko harremanik ez duen gizabanakoak ere aukera du arrantza aritzeko gutxieneko bermearekin. Baxurako arrantza tradizionala ekosistemen dibertsitateko egokitutako tresnen eta praktiketan oinarritua da. Gaur egun, praktika hauek egoki daitezke eta bilaka daitezke jakintza eta ezagupen multzo tradizionala errespetatuz.

Arestian aipatu dugun legez, gaurko teknologia aurreratua eduki ez zizutenean ingurune itsastar gehiena ikusezina, atzeman ezinezkoa suertatzen zen, eta ezagutzeko zuten modu bakarrenetakoa, arrantza saiatzea zen. Hori dela eta, praktikarekin eta arrantza aritzearekin arrantzaleak lortzen zizutten beharrezko ezagutzak: ingurune itsastarrari buruz eta harrapakinen ohiturei buruz.

El pescador aprende desde niño, inmerso primero en el diario ir y venir de las redes, barcos, pesca, ayudando a sus padres al dejar la escuela u oyendo los comentarios sobre el trabajo en la familia. Luego su propia experiencia le confirma o le matiza lo aprendido, a lo cual aporta su habilidad personal y los comentarios de sus compañeros. De esta forma van siendo traducidos por la comunidad en tecnología y tiempo de trabajo, en relaciones sociales y organización de su actividad laboral. (SAN MARTIN ARCE 1982: 47)

Ezagutzaren eraketa pertsonala den arren, elkarrekintza ingurunetan zertzen da, hau da gizarteak aintzat hartuko dituen ekintza ezberdinen bidez eta teknologia sistema eta informazio trukaketa erabiltzen dira.

F.P.: “Arrantzale batzuek biska berezia ditek, sentido bat esango nitek nik, beste batzuk, ostea, nahiz eta mila urteetan aritu, urte askotan saiatu ere lortuko ez genukeena.”

Arrantzaleen aprendizaiak praktikoa izan da eta ofizioari buruzko aurretiko ezagupenak ez ditu behar. Aprendizaiak hau, oro har, hierarkizatua da, lan banaketaren ondorengo estatus soziala definitu dena. Aprendizaiak zenbait osagai pedagogiko ez ezik osagai soziala ere baditu, alderdi teknikoak eta ideologikoak elkar loturik joango direlarik. Arrantzaleak arrantza prozesuak atxikitzen ditu, ez prozesu soilarengatik, beste pertsonengandik baizik. Geroan egingo dituen aplikapenak konbentzioz tradizioan ezarriko dira, bere maisuengan duen konfidantzan, bere autoritate kognitiboa aintzat hartuta. (BARNES 1996).

B.P.: “Nik zekidakena, ikasi itsasoan ikasi diat, ume izanda sartu nukek eta, baina ez bakarrik itsasoari buruz, bizitzari buruz ere bai, nik 12 urterekin hasi ninduan lanean hemen eta...”

Arrantzaleak neurtuko ditu izakien biologiar buruzko dituen ezagutzak, alde batetik: lanaren iraupena, itsasaldiak eta kanpainak, hau da, izaki konkretu bat harra-patzeko zein den sasoirik egokiena, adibidez. Bestetik, lanabesak aztertu behar ditu, hau da, zein den arterik egokiena aipatu izakia harrapatu ahal izateko.

“Savoir faire” honetaz gain teknologia izango da produkzioa areagotzeko arrantza-leak duen instrumentuetako bat. Horregatik, arrantza jardueran egokitze teknologikoa eta hobekuntzaren prozesua etengabe emango da. Orduan, egokitze beharrak eta produkzioa areagotzeko beharrak berrikuntza teknologikoa dakarte.

A.A.: “En este trabajo hay que estar al día, a la última en tecnología, hay que saber cómo pescan los de al lado, que es lo que utilizan ellos, cual es la mejor manera, cual es el mejor aparato que hay en el mercado, aunque luego no sepas usarlo, pero da confianza tenerlo...”

#### 4. INFORMAZIOAREN GARRANTZIA

Arrantza munduan, dudarik ez dago, arrain sardak lekutzeko estrategietan paper garrantzizkoa jokatzeko dutela, laguntza teknologikoez gain, informazioa edukitzeak eta lanari buruzko ezagupen multzoek. Horregatik, arrantzuntzia itsasoan bada, arrantzaleak informazioa igorri eta jasotzeko aparailu ugari martxan izaten ditu (UHF, Irrati-telefonía aparailua, Irrati emisorea...) eta denei aditasuna jarri behar die. Hori dela eta, arrantza patrioiarekin itsasoan zaila suertatzen da elkarrizketa bat mantentzea, zeren bere arreta osoa aparailu elektronikoen horietan eta informazio bilketan jarri behar baitu.

F.P.: “Itsasoan arrantza patrioiaren lana zoratzekoa duk, ez zekiat nola aguantatzen duen, egun guztian, aparailuekin adi...”

Informazio bilketari dagokionez arrantzalearentzat garrantzitsua da, besteak beste, honelako ezagupenak eskuratzea:

–Especie bakoitzaren arrantza eremuak. Erabakitzea non saiatu behar den.

- Itsas hondo bakoitzeko zein den erabiliko den aparailurik egokiena, sarearen neurriak, amuen kalibreak eta abar.
- Beitaren ezaugarria, espezie ezberdinek beita desberdinak baitituzte gustuko.
- Itsas hondoa osaketa, desberdina baita arrantza mota hondartzetan eta harrizko hondotan.
- Itsas korranteak eta mareak.
- Harrapakinen ohitura elikagaiari dagokionez.
- Arrainen jarrera urtaro desberdinetan, migrazioak, ugalketa garaia eta abar.
- Harrapatutakoaren salneurriak.
- Itsasoaren egoera, egonaldia eta beste fenomeno meteorologikoak.
- Europar Komunitatearen eta estatu bakoitzaren legedia.

Arrain harrapaketari buruzko informazioa edukitzeak itsas errekurtsoei sarbide mugatua dakarkie. Itsasoan barne arrain lekutzeari buruzko ezagupenak eta arrainak harrapatzeko zein den taktikarik eraginkorrenak jakitea kapital ondasun urria da. Arrantzaleak ezin ditu itsas baliabideen jarrera kontrolatu, baina bai, aldiz, hauei buruzko duen informazioa. (JOHNSON 1979, 246).

Arrain sardak lekutzeari buruzko informazioaren erabilpenak baimentzen du jarduera arriskutsu eta konpetitiboetan nolabaiteko ziurtasuna sartzea. Honela bada, ezagutzeak eta informazioak ingurune zehaztugabe eta jakin ezinezkoan erregularatzen eta ordena ipintzen lortzen dute, arrantza jardueraren ziurgabetasuna, neurri batean, kitatuz.

Orokorrean, arrantza aukera onei buruzko informazioak eta datuak arrantzaleak ezkutuan gordetzen ditu, edo bestela lagun talde txikiren artean elkartrukatzen da. Perretxiko biltzaileak egiten duten bezala. Zentzu honetan, esan daiteke informazioa kapital ondasun urria dela eta, era berean, baliagarria. Ezagupen horien gaineko kontrolak eta ondorengo erabilpenak arrantzaren arrakastaren probabilitatea areagotzen dute eta patroia beraren eta tripulazio osoaren ondasun, estatus eta prestigio sozialaren maila positiboki gehitzen da. Baldintza berdintsuetan ongi informaturik dagoen arrantzaleak informazio eskasa duenak baino gehiago harrapatuko du. Informazioaren edo ezagupenaren kontrola orduan, lehiakortasunean irabazteko, faktore estrategikoa da, antzina lurraren kontrola edo produkzio bitartekoena zen bezala.

A.A.: "La información es el mayor valor que hay, si sabes donde hay pescado lo puedes coger, pero si no lo sabes... ¿Dónde echas la red, lo haces al tun-tun?"

Arrantzaleak ikusten duen edozer arrastori jarraitzen dio arrainak untziratzeko helburua lortu nahian. Zenbait arrantzalek radarren bidez jarraitzen dituzte estuki beste arrantzontziaren mugimenduak. Adibidez, hegaluze garaian arrantzontzi batek bere abiadura gutxiagotzen badu edo puntu batean jirabiraka badabil, edota tripulazioa ontzi bizkarrean jarria bada litekeena da hegaluzeak harrapatzen ari direla. Hala, lekuren batetik arrantzontzi batek abiadura azkarrez ihes egiten badu arrainik ez dagoela edo antzeko seinalea izan daiteke. Modu berean, arrantzontzi baten inguruan kaioak jira-biraka egoteak arrain harrapaketa ziurtatzen du. Seinale hauek oso ondo ezagutzen dituzte marineltzadun arrantzaleek.

Arrantzalearen erabakiak aldagai ezberdinetan oinarriturik daude. Adibidez, beste patroia edo arrantzaleengandik jasotako informazioan, harrapatu nahi den arraine-

tan, arrain sarden tamainetan edo enkantean lor dezakeen prezioetan. Datu hauez baliaturik, arrantzaleak aginduko du nora joan eta zein hondartzetan bota behar diren arrantza aparailuak eta zein sakoneran, beti ere, marearen errendimendua eta balizko produkzioa aztertuz.

Arrantzalearen irudiak (patroi onarena, alegia) izaera sasi-mitikoa irabazi du arrantza profesional sektore askotan. Arrantzu patroia eta tostartekoekin izandako hizketaldi luzeetan gai hau behin baino gehiago mahairatzen da, gai honen inguruan honako galdera hauek errepikatzen dira:

–Zein kualitate izan behar du arrantzale onak?

–Zer dela eta, egoera berdintsuetan, arrantzale hauetako batzuk harrapaketa ugari egiten dituzte eta beste batzuk ez?

Horrelako eztabaidagai egunero ateratzen da arrantzaleen artean. Honekin loturik, arrantzuntzi batzuei ospe ona ematen diete, nahiz eta patroiaz aldatu izardun arrantzuntziak harrapaketa onak lortuko ditu.

Pertsona batzuen ustez, arrantzale sasi-mitiko hauek kualitate innato, oso bereziak eta ia sobrenaturalak dituzte. Arrantzale hauek arrainak lekutzeko, sarden nora bidea ezagutzeko edo arrainak uretan daraman posizioa ezagutu ahal izateko seigarren zentzumenez jaiotzen dira. Orduan, arrantzalea jaiotzen dela esan ohi da, bertsolaria bezala ez dela hezten, ez dela heziketan lortzen den gaitasuna. Ondorioz, alferrikakoa litzateke itsas-lanbide eskola egitea arrantzaleak sortzeko, zeren kualitate berezi hauek ez dituztenek nekez lortuko baitute arrantzale ona izatea.

Arrantzaleen gutxiengo batek alderantzizkoa uste du, izan ere, batzuen arrakasta jakintza zehazketan datzala sinesten baitu; hau da, irizpide erreal eta objektiboak ezagutzen dituelako arrakasta datorkio. Euren iritzian, arrantzale batek asko harapatzeak adierazten du horrek arrain sardak lekutzeko estrategia egokiak erabiltzen dituela, baita arrantza maniobra ziur eta modu zuzenez burutzeko aginte kualitateak badituela eta, azkenik, lanerako gaitasun aparta duela. Kualitate hauek guztiak, nahiz eta, hein handi batean, esperientziak lagunduta eskuratuak izan, transmititu edo besteei erakutsi diezaiekete. Hori dela eta, arrantzalearen maniobra edo erabaki guztiak arrazoi eta motibazio kontzientek gidatuak direla; hau da, ikasiak direla. Orduan, ikasiak badira ezagutza multzo horiek komunikagarriak dira.

## 5. ITSASOAN ARITZEA: TALDEKO ETA BANAKAKO ESTRATEGIAK

Arrantzaleen komunitatetan adostasunak ohikoak ez badira ere, askotan entzun daiteke honelako adierazpena: “Itsasoa denona da”, eta honetan bederen arrantzale guztiak bat datoz. Itsasoaren erabilera kolektiboari buruzko mito honek ondorio ezberdin batzuk dakartza eta horietako batek kasu egiten dio arrantzarako sarbideari, hau da itsas baliabideak eskuratzeko arrantzale komunitateak dituen aukerei.

Arrantzaleek itsasoaren sarbide kolektiboa ulertzen dute lehorreko jabetza pribatuarekin kontrajarria, hau da baserritarrekin alderatuta, izan ere arrantzaleek euren burua liberatua ikusten dute lurraren pribatizazioak duen eragozpenetatik. Pertsona orok du itsasorako sarbide eskubidea eta hori bi estrategia motaren bidez ahalbide-

tzen da: taldekoa (arrantzale komunitateak burutzen duena) eta banakakoa (ekoizleak burutuko duena).

Arrantzale komunitateak zenbait estrategia sozial eta kulturakoren bidez sarbidea bereganatzen dute, itsas eremuaz jabetzen dira eta eremu horiek euren ondarea dela egiten dute. Jabetze estrategia honen adibiderik adierazgarriena dugu zenbait tokitan arrantzarako ezartzen diren debekuen aurrean arrantzale komunitateak aldarrikatzen dituenen bertan arrantzatzeko euren eskubide historiko edo ohiturazkoak. Azken finean, arrantzan aritzeko ohiturazko eskubideen bidez itsas eremuak bereganatu dituzte eta, bide batez, bertan dauden arrainak.

Ustiaketaren objektua, hots, itsasoa, ezin da jabego pribatutzat kontsideratu. Arrantzalea itsasoratuko da baliabideak, hau da arrainak, ontziratze asmotan, baina ez du inoiz itsasoa hartuko onura pribatua izango bailitzan. Beste sektore ekonomikoetan, nekazaritzan kasu, lan objektua (lurra) jabego pribatua edo talde-komunitate jabegoa kontsideratuko da, hau honela izanik, lege sistema baten araupean egongo da.

Bestalde, banakako estrategiak ez dira ondorioztatzen eskubideetatik, lan prozesu luzearen ondorioak dira, zeinetan ikasketa-bidean arrantzaleak jaso duen jakintza multzoa aplikatuta eta bertako inguruneetara eta zirkunstantzietara egokituta, ekoizle bakoitzak garatu nahi baitu ekoizpen prozesua. Arrantzaleak bere lanerako behar duen apendizai luzea da, eta beharrezkoak dituen saiakuntzek arrantzaleari berari zenbait eskubide eskaintzen dizkiote, itsas eremu zehatz batean lanean aritzeko edo eremu horretaz baliatzeko. Itsasoaz jabetzea materialki ezinezkoa bada arrantzaleak arrantzan aritzeaz eta beharrezkoak dituen ezagupenez baliatuko da erabilpen-eskubideen bidez itsasoa ustiatzeko.

Erabilpen-eskubide hauez baliatzeak arrantza teknika zehatza ekartzen du. Zentzu honetan, arrantzak teknika partikular batekin (arrantzuntzi mota, erabilitako artea, eta abarrekin) elkartua dagoen jardura izendatzen du. Nolanahi ere, arrantza desegur eta zorizko jardura da eta bertan elementu teknikoak garrantzi handikoak direla jakina da. Arrantzaleak elementu teknikoak mendera ditzake, baina ez, aitzitik, arrantzaren oinarriko helburua: arraina edo baliabidea. Itsas inguruneak ez du beza-pen gradurik agertzen eta orduan ingurunearen zoriozkoaren gaineko menpekotasuna oso handia da. (GALVAN 1988: 12). Ezintasun honek ingurune fisikoaren menpekotasunera behartu du arrantzalea.

Arrantzaren praktika sortzen eta bilakatzen da arrantzaleek bildutako esperientzien erantzuna bezala. Bere lan prozesu anitzek eta iraunkorrek eskaintzan dizkiote bere jardura aurrera eramateko beharrezkoak dituzten elementuak. (GEISTDOERFER 1974: 171).

## 6. EZAGUTZAREN PATRIMONIALIZAZIOA

Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarrak, Rio de Janeiro 1992n egin zena, kontutan hartzen du bere 22. printzipioan ingurunearen kudeaketa iraunkorra izan dadin ezagutza tradizionalaren garrantzia eta kudeaketa horretan parte hartzea (GARCIA ALLUT 2003). Eta honi buruz honela dio:

- 22. Printzipioa. Populazio indigenak eta beren komunitateak, baita bestelako tokiko komunitateak ere, oinarriko zeregina dute ingurumena antolatu eta



garatzeko orduan, tradiziozko praktikak eta ezagutzak erabiltzen baitituzte. Estatuak horien identitatea, kultura eta interesak onartu eta bultzatu beharko lituzkete eta garapen iraunkorra lortzeko partaidetza eragingorra izan beharko lukete.

Beraz, tradiziozko praktikek eta ezagutzek garrantzia dute eta horrela onartzen zaie ingurunearen kudeaketa.

Antzeko ebazpena proposatzen du FAO erakundeak Arrantza Arduratsurako Jarrera Kodigoan izeneko txostenean (FAO 1995). Izan ere, munduko estatuei eskatzen die kontutan hartu behar dutela bere ustiapen erabakietan arrantzaleen tradiziozko ezagutza, baliabideei eta habitatei buruz, eta ez bakarrik osagai sozioekonomikoak (ARANDA ETA ALL 2006: 3).

Itsaso-baliabideen ustiaketa arduratsua kudeatu nahi bada arrantzaleen ezagutzarekin kontatzea behar beharrezkoa da, zere nezagutza hori ez da bakarrik belau-naldiz belaunaldi transmititu den eta geratu dena, egunero lanbide profesionalarekin osatzen den ezagutza multzoa. Elkar-kudeaketa honen adibiderik esanguratsuenak Kanadan ditugu, bertan arrantza demersalen harrapaketa eta James Badian egin diren antolaketa eta legediaren langintzan arrantzaleek hartu dute parte zuzena (BERKER 1989). Ekimen hauetan arrantzaleen elkarteak, arrantzu industria eta gobernu estatalak elkarrekin egin dute antolaketa, arautegien garapena eta zenbait ustiapen erregulazioa eta betearazteko neurriak.

Horrelako elkar-kudeaketatik atera daitezkeen onurak dira baliabideen gaineko babesa eta erabilera egokia. Bi aldeak, arrantzaleak eta estatuko agintariak konturatu dira bestearen beharraz, elkarren beharra dutela. Gobernuak onartzen dute kudeaketa mota horiz eren horrela baliabideen gaineko politikak betetzeko aukera gehiago dago. Arrantzaleek ikusten dute beraien iritzia keta ezagutzak kontutan hartzen direla, horrela ezartzen diren arau eta debekuak zilegigoak omen dira arrantzaleen ustez.

Arrantzaleen ikuspegitik garrantzizkoa da abere parte hartzea horrela beraien oharak, kezkak edo aldarrikapenak plazaratzeko aukera dituzte eta aldarrikapenak entzuten dira (GOETZA 2004). Gainera tradiziozko ezagutzaren erabilera egungo zientifikoaren ikuspegiaren beste onura asko ekartzen ditu: alde batetik baliabideen gaineko datuak eskaintzea, baliabideen egoera eta etorkizuneko egitasmoak planifikatzeko aukera.

Oraingo kudeaketa mota honen porrota nabaria da: zientifikoek proposatzen dute eta politikariek erabakiak hartzen dituzte. Askotan kudeaketa bertikala egin da, non kudeatzaileek ez dituztela kontutan hartu baliabideen erabiltzaile eta ustiatzaileen iritzia eta ezagutzak. Gainera, arrantza betidanik kudeatu ditu itsasoko baliabideak, historian zehar lanabes eta akordio batzuen bidez agertu du arrantzaleak, baliabideen gainekok ezka.

## 7. BIBLIOGRAFIA

ANDERSEN, R. & WADEL, C. (1972) "Comparative problems in fishing adaptations" in ANDERSEN, R. & WADEL, C. (1972) *North Atlantic fisherman; anthropological essay on modern fishing*. Memorial University. Newfoundland. (141-165).

- ARANDA, M.; MURILLAS, A.; MOTOS, L. (2006) "La base del conocimiento en la gestión de pesquerías: el casop del sistema de mandato y control en la Unión Europea". In *Revista Galega de Economía*. Vol 15, N1.
- BARNES, B.; BLOOR, D.; HENRI, J. (1996) *Scientific knowleedge. A sociological analysis*. The University of Chicago Press.
- BERKES, F. (1999) *Sacred ecology. Traditional Ecological Knowledge and reosurce management*. Taylor&Francis. Philadelphia.
- . 1989. "Co-Management and the James Bay Agreement". En E. Pinkerton, ed. *Co-operative Management of Local Fisheries*. Vancouver: UBC Press. Págs. 181-208.
- BRETON, F. (1990) "El aprendizaje del oficio del pescador: saber y transmisión del saber entre los pescadores de arrastre". In *Eres. Serie Antropología*. (143-159).
- FAO (1995) *Codigo de conducta de la pesca responsable*. FAO. Erroma <ftp://ftp.fao.org/docrep/fao/005/v9878s/v9878s00.pdf>.
- GALVAN TUDELA, A. (1988) "La antropología de la pesca: problemas, teorías y conceptos" in *Revista Canaria de Filosofía y Ciencia Social*. 2: 11-33.
- GARCIA-ALLUT, A. (2003) "La pesca artesanal, el cambio y la patrimonialización del conocimiento". In P.H. *Boletin del Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico*. 44. Or: 74-83.
- GEISTDOERFER, A. (1974) "Savoir et techniques des lles de la Madaline (Quebec) ou de quelques moyens de s'approprier le mer et ses ressources" in *Journal d'Agric tropicale et de botanique aplanquée*. 7-8-9. (169-217).
- GODELIER, M. (1979) "Infraestructuras, sociedades e historia" in *Teoría* 2: 3-21.
- GOETZA, T.C. (2004) *Sharing the Canadian experience with co-management*. CIID. Ottawa.
- JOHNSON, T. (1979) «Work together, Eat together. Conflict and Conflict Management in a Portuguese Fising Village» in *North Atlantic Maritime Cultures: Anthropological Essays on Changing Adaptations*. Mouton. La Haya. pp 241-252.
- JORION, P. (1983) *Les Pêcheurs d'Houat, Anthrologie Economique*. Hermann. Paris.
- MAILHOT, J. (1994). *Le savoir écologique traditionnel : la variabilité des systèmes de connaissance et leur étude*. Dossier-synthese nº 4, evaluation environnementale du projet Grande-Baleine. Bureau de soutien de l'examen public du Projet Grande Baleine, Montréal.
- POMEROY, RIVERA-GÜEB (2005) *Fishery co-management. A pratical Handbook*. CABI-IDRC. Ottawa.
- REYES-GARCIA, V.; MARTÍ SANZ, N. (2007) Etnoecología: punto de encuentro entre naturaleza y cultura. *Ecosistemas. Revista científica y tecnica de ecología y medio ambiente*. 2007/3.
- SAN MARTIN ARCE, R. (1982) *La Albufera y sus hombres*. Akal.Madrid.
- SANCHEZ FERNANDEZ, J.O. (1993) "Antropología de la pesca" in AGUIRRE BAZTAN,A. (1993) *Diccionario temático de antropología*. Boixareu Universitaria. Barcelona.

## 8. ERANSKINA

Letra etzanarekin agertzen diren esaldiak informatzaile ezberdinen adierazpenak dira: hauek dira informatzaile bakoitzaren ezaugarri batzuk:

F.P. 70 urteko arrantzale erretiratua. Txikitatik hasi zen lanbide honetan, arrantzu patroia izandakoa da.

A.A. Altuerako Arrantzalea 55 urte. Arrantzu patroia.